


2023/27

Agintaldi programa



**ANDOA
INBIZI
TZEKO**



ANDOAINGO UDALA

**ZAINDUKO ZAITUEN HERRI BAT
BIZIKO DUZUN HERRI BAT**

Ezin dugu uka testuinguru nahasi eta korapilatsuak bizi gaituela. Oraindik ere osasun krisiak utzitako ondorioak ari gara pairatzen; zer esan nazioarteko gerrek gudan duten zehar-eraginez... eta, gutxi ez, eta Europa osoa zeharkatzen ari den ultra eskuinaren oldarraldia ere sufritu beharrean gara.

Horiek guztiek askotariko ondorioak utzi dituzte gudan:

- ~~~~ Oinarrizko elikagaien prezioen igoera neurrigabea.
- ~~~~ Lan-baldintza prekarioak eta soldaten izozteak.
- ~~~~ Gazteentzat lan-baldintza eskasak, eta, beraz, emanzipaziorako aukera gutxi.
- ~~~~ Murrizketak oinarrizko zerbitzuetan.
- ~~~~ Politikarekiko desafekzioa eta urruntzea maila askotan.
- ~~~~ Etorkizunarekiko ezegonkortasun eta kezka handia.
- ~~~~ Euskararen aurkako oldarraldia (judiziala, eta baita ideologikoa ere).
- ~~~~ Gure herriaren aniztasunaren aurkako jarrerak.
- ~~~~ ...

Egoera horretan, garrantzitsua da Udalaren ekimena, ezinbestekoa. Herritarrengandik gertuen dagoen erakunde publikoa izanik, herritarrekin batera, ziurgabetasun eta ezegonkortasun egoerei aurre egiteko tresna izan behar du.

Udalak eskumenak mugatuak ditu hainbat gaitetan, eta bitarteko tekniko zein ekonomiko urriak ditu egoerak eskatzen duen guztiari aurre egiteko. Baina udalak borondatea eta prestasuna eduki behar du herritarren beharrak identifikatzeko, horiei soluziobide bat ematen saiatzeko eskumena duen gai horietan eta bidelagun izateko iristen ez den eremu horietan.

Udala herritarrarentzat tresna eraginkor eta baliagarria izatea nahi dugu. Horretarako, gure gobernuaren jardun osoa honako balore hauen gainean eraiki nahi dugu:

Gardentasuna

Zintzotasuna

Gertutasuna

Irizpide sendoak ezarri nahi ditugu, eta andoaindar guztien eskaerei irizpide berberen bueltan erantzungo zaiela ziurtatu nahi dugu. Maila bakarreko herritarrak dituen herria izan dadin.

Gure gobernuaren jardunak bat egiten du Andoainek dituen ezaguarriekin eta gure jardunaren zeharlerroak izango dira, besteak beste:

▼ **Berdintasuna:** andoaindar guztiak kontuan hartzeaz gain, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna izango du oinarri. Ja-

rrera matxista oro errefusatzuz, gure herriaren egunerokotasunetik at uzteko borondatearekin lan egingo du.

▼ **Euskaltzaletasuna:** Andoain herri eleanitza da. Jatorri ezberdineko andoaindarrek sortu duten aberastasunaren ezaugarri nagusietako bat da. Euskararen egoera ahula kontuan hartuz, euskara hizkuntza bertebratzaile gisa garatu nahi dugu, Andoain, herritar euskaldun eleanitzez osatutako herria izan dadin.

▼ **Larrialdi klimatikoak kezkatzen gaitu.** Gure herria subjektu aktiboa izango da zeregin horretan. Lurraren kutsatze-prozesuan norbanakoak duen arduraz jakitun gara, eta, beraz, hori sahiesteko egin dezakegunaz arduratuko gara.

▼ **Kohesio soziala:** arestian aipatu ditugun faktore horiek, gure herrian batzuen eta besteen arteko arrakala gero eta handiagoa izateko arriskua hor dago. Udal honen borondatea da arrakala hori desagertaraztea. Gure ongizatearen ardatz nagusiak herritar guztien ongizatea izan behar du.


Bukatzeko, ez ditugu ahaztu behar Andoainek dituen erronka propioak. Baditu zenbait arazo estruktural, eta horiei erantzuna ematen hasi behar gara:

- ~~~~ N-1 eta A-15ak gure herria garatzeko sortzen duten oztopoa.
- ~~~~ Etxebizitzaren arazoa.
- ~~~~ Udal administrazioaren egoera.
- ~~~~ ...

Horrengatik guztiagatik, Andoain herri bizigarria izan dadila nahi dugu. Herritar guztiek bere bizitza proiektua arazorik gabe garatuko duten, eta herritarren esperientzia bizigarria berrmatuko duen herria izatea nahi dugu. Biziko dugun herri bat izatea nahi dugu. Eta, beste ezeren gainera, herritarrak zainduko dituen herri bat izatea nahi dugu: Andoain, bizitzeko - Zainduko zaituen herri bat, biziko duzun herri bat.

3 ardatz, eta 73 neurri finkatu ditugu, aipatutako guztia egikaritze bidean:


-  **Pertsonak**
-  **Azpiegiturak**
-  **Herrigintza**



















NEURRIAK

-  **1.** Herrian dauden haur parkeak konpondu eta egokitu.
-  **2.** Herri osoko errepideen asfaltatze-lanak.
-  **3.** Herriko kale, espaloi eta udal eraikinen egokitzapena, irisgarritasunaren ikuspegitik, herriko pertsona eta eragileekin elkarlanean.
-  **4.** Olagain auzunearen berritzea, irisgarritasunari dagokionez.
-  **5.** Zerbitzuen lan sailerako eraikin berria eraiki Illarramendi gunean, eraginkortasuna hobetze aldera.
-  **6.** Ur kontadore digitalen ezarpena herri osoan.
-  **7.** Leitzaran kaleko kolektoreen konponketa gauzatu.
-  **8.** Kale-garbiketa hobetze aldera, beharrezko gailuen eta materialen erosketa, horien artean, barredora berria.
-  **9.** Algodonerako Emakumeen plaza inguruko garajeei behin-betiko irtenbidea eman.
-  **10.** Ubilluts-eko kanalizazioa gauzatu.
-  **11.** Hondakinen sailkapen egokia gauzatu eta, datuak hobetze aldera, kanpaina eta sentsibilizazio ekintzak gauzatu.
-  **12.** Zaborraren edukiontzi egokien berplanteatzea, herritarren erosotasuna hobetzeko.
-  **13.** Herrian egokitu daitezkeen aisialdi-guneen azterketa; hala nola, mahaiak kokatzea Miranda pasealekuan eta ur parkearen inguruetan.
-  **14.** Aparkaleku berriak errealitate bilakatzeko azterketalana.
-  **15.** Kiroldegiko bigarren pista estaliaren proiektua bukatu eta eraikuntzarekin hasi.
-  **16.** Herriko taldeen eta herritarren beharrei aurre egiteko azpiegitura berriak: padel pistak, rokodromoa...
-  **17.** Eskola-kirola egungo kirol eta hezkuntza-errealitatera egokitu eta horretarako behar diren tresnak eta baliabideak jarri.

-  **18.** Ikastetxe guztietako kirol-eremuak asteburuetan irekitzeko prozesua abiatu, herritarrek kirola egiteko aukera izan dezaten.
-  **19.** Kirola eta Osasuna programa martxan jarri, herriko ambulatorioarekin erkarlanean.
-   **20.** Ordenantza Fiskalen egokitzapena eta progresibitatearen azterketa, zaurgarrienak eta behar gehien dutenak babesteko asmoz.
-   **21.** Enpresa eta merkatariei laguntzak emateko ordenantza onartu eta martxan jarri.
-   **22.** Herriko lokal hutsetan *coworking* espazioak egokitu.
-   **23.** Ekintzaileei beren proiektuak martxan jartzeko bide administratiboa erraztu.
-  **24.** Papelerako eremu zaharrear anparkalekua egokitu, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmena eginda.
-  **25.** Karabana eta autokarabanentzako anparkalekuaren azterketa.
-  **26.** 0-5 urte bitarteko haur eta familientzako lokalaren egokitzapena.
-  **27.** Herri Kontsultak egiteko araudia prestatu, adostu eta onartu.
-  **28.** Eskaerei bizkorrago erantzuteko araudiak eta prozedurak aztertu eta egokitu, esaterako, obra txikien kasuan.
-  **29.** Gabriel Aresti kalearen urbanizazioa burura eraman.
-  **30.** Ur hoditeriaren saneamendu planarekin jarraitu.
-  **31.** Ama Kandida etorbideko garapen urbanistikoari behin betiko bultzada eman.
-  **32.** Etxeberrietako auzoko garapen urbanistikoaren korapiloa askatu eta garapen urbanistikoa bideratu.
-    **33.** Udal Liburutegiaren proiektuari behin betiko bultzada eman.
-   **34.** Herrian gune estali berriak egokitzeko azterketa egin.
-    **35.** Goiburun eta Buruntzan, aisialdirako guneak pentsatu eta egokitu.
-  **36.** Hiri Antolamendurako Plan Orokor berriaren oinarriak finkatzen hasi.
-  **37.** Oinarrizko elikagaien prezioen igoera neurrigabeak kaltetutako sektoreei arreta berezia ipini.

-  **38.** Herrian dauden lokalen azterketa egin, etxebizitza egiteko dituzten aukerak ikusteko. Ordenantza berria egokitu.
-  **39.** Udal eraikinen kontsumoen kontrol eta monitarizazioa egin.
-  **40.** Auto elektrikoentzat errenergia puntuak egokitu herrian.
-  **41.** Herrian igerileku naturalak egiteko egin zen analisiaren bideragarritasuna aztertu.
-  **42.** Klima larrialdiari aurre egiteko neurriak hartu: berdeguneak handitu, itzal gune berriak egokitu, estalkiak...
-  **43.** Mugikortasun-plana adostu eta onartu.
-  **44.** Andoainentzat jasagarriena den proiektua idatzi N-1 eta A-15 lotunerako.
-  **45.** Kultura-mahaia eratu eta martxan jarri, herriko diagnostia egin eta plan estrategikoa adosteko herriko eragileekin batera.
-  **46.** Kultura, antzerki, musika taldeentzat entsegu eta ekitaldietarako Sorkuntza gunea sortu.
-  **47.** Herriko kultur aniztasuna aintzat hartuta, elkarbizitzarako Aniztasun Kulturalaren Plana abian jarri.
-  **48.** Hezkuntza-eremuan, balore eta proiektu komunak lantzeko bitartekoak jartzea Hezkuntza Mahaiaren osaketarekin.
-  **49.** Oinarrizko udal gazteria politika garatu.
-  **50.** Gazteen emantzipazioa, enplegua, herritartasun aktiboa... zeharlerroak martxan jarri.
-  **51.** Euskararen erabilpen planaren garapenarekin jarraitu.
-  **52.** Euskararen irakaskuntzan doakotasunerantz urratsak ematen jarraitu.
-  **53.** Euskararen kale-erabilera sustatu.
-  **54.** Euskararen familia-transmisiorako kanpainak gauzatu.
-  **55.** Kirol taldeetan eta Eskola Kirolean euskararen erabilera sustatu: entrenatzaileentzat bideratutako formazio saioak.
-  **56.** Aisialdia eta Euskara diagnostikoaren ondorioetatik abiatuta, herriko eragileekin lanketa sakona erabilera sustatzeko helburuarekin.

- 
- 57.** Udalaren eta andoaindarrren arteko komunikazio bideak hobetzeko neurriak: AndoainAPPren berabiaraztea, panel informatiboak, elkarlaneko agenda...
- 58.** Gizarte Zerbitzuetako arloaren lan-banaketa eraginkorra: haur eta nerabeen kasuen, jarraipena egingo duen gizarte langile espezializatua izendatu.
- 59.** Andoain herri zaintzaile izateko bidean, Zaintza Plana osatu eta martxan jarri.
- 60.** 'Nahi ez diren bakardadeak' edo 'Bakardade behartuak': Diagnostika egin beharrak identifikatzeko eta horiei erantzuna emateko proiektuak sortu/martxan jarri.
- 61.** Herri inklusioa izateko bidean, Udal mailan formakuntza eskaini.
- 62.** Aniztasun funtzionala: udal sail guztiekin elkarlana sustatu irisgarritasuna eta mugikortasuna erabatekoa izan dadin.
- 63.** Belaunaldi arteko programak sustatu.
- 64.** Herri hezitzailearen oinarriak aztertu.
- 65.** Emakumeen Etxea sortzeko prozesu parte-hartzailea abiarazi.
- 66.** Emakume eta Gizonen arteko egoeraren gaineko diagnosi berria egin.
- 67.** Diagnostik abiatura, Berdintasun plan berria osatu.
- 68.** Udaletxeko Berdintasun barne-plana egin, tokiko politika bakoitzean genero-ikuspegia bermatuz (kontratazioan genero-klausulak ezarri, aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatu...).
- 69.** Berdintasunaren gaiari lotuta, Udal barruan, Batzorde politikoa abiarazi eta Batzorde teknikoaren jarraipena egin.
- 70.** Emakumeen parte-hartze esparru egonkor bat izateko, Berdintasunerako kontseilua sortu.
- 71.** Herrira bizitzera etorri berri direnei ongi-etorria emateko egitasmoa martxan jarri.
- 72.** Atzerritarrek Andoaingo komunitatean txertatzeko egitasmoak martxan jarri.
- 73.** Atzerritik etorri berriak direnei laguntza juridikoa emango dien hitzarmenak sustatu.